

1.– SARRERA

Munduko edertasunak ikusteko, gauza aundietara naiz txikietara begiratu geinke. Dana da arrigarria. Baiña gauza aundietan agertzen da errezen arrigarri izate ori. Txikietan be molekulak eta atomoak aztertu ezkeru, gauza arrigarriak aurkitu leikez.

Egia esan, aunditasunaren aunditasunagaz galdu egiten gara. Ba-dakigu argiak segundoko 200.000 km.'ko bidea egiten dauana eta argi urtea esaten dogunean, argiak urte baten egiten dauan bidea esan gura dogula, urteak daukazan segunduak kontuan artu ezkeru, eta segundo 200.000 km. dirala jakiñik, urte baten egiten dan bidea zenbat dan guk ezin ulertu. Lar arrigarria jaku “argi-urtea”, bat izanda be, ulertzea.

Zer izango da izar bat edo izar moltzo bat 160.000 argi-urteko bidea eginda aurkitzen dogula diñogunean? Edo milloiak argi-urteak aitatzen doguzanean? Benetan galduta aurkitzen gara!

Dana dala, urrengo idaz-lanetan olako gauza arrigarriak aitatuko doguz.

Asi gaitezkan lenengo urratsetatik.

1519n. urtean Magallanes itxas-gizon ospetsuak, lurbiraren egoaldetik ikusten diran izar bi ikusi ebazan. Ordutik asita deritxe Magallanes'en Izarrak. Eta bere jaioterritik ikusten ez ziralako, arrituta, asi zan zerua aztertzeke bideak kontuan artzen.

Magallanes'en izarrak ez ziran izarrak, galaxia txiki bi baiño. Eta galaxia txiki bi oneik gure bizileku zabal ikaragarria zan Esne-Bide edo Via Laktea'ren inguruan biraka dabiltz eta urrean dagoz, lurra eguzkiaren inguruan lez.

Emendik Magallanes galaxia orreitara 160.000 argi-urteko bidea dago.

Andik urrean dagoan Polo'ko izarraren ondoan dagoz Perseo, Kassiopea eta Ursa aundia eta oneik Orion'egaz batera dira zerua apaintzen daben 88 arloetariko bat.

Izar-moltzo askori, Ptolomeo asita, piztien izenak ezarri jakez: Andromeda, Leo, Herkules, Taurus.

Ona emen sakontze onetan egin dan aurrera -bidea.

1) Samos'ko Aristarko (K.a. 310). Onek eguzkia ipinten eban izar guztien erdian. Orretan bera izan zan lenengoa.

2) Koperniko: XVI gizaldikoa zan: Barriro eguzkia ipinten eban erdian eta iritxi ori ziurtatu eban Galileo'k. Jupiter'en lau sateliteak aurkitu ebezan.

3) Kleper'ek XVI gizaldian planeten orbitak zeaztu ebazan.

4) Newton'ek egin eban zientzi-lanik aundiena, batez be aztuntasunaren legea (gravedad) aurkitu ebanean. Gaiñera teleikuskin barria egin eban, askoz ohea.

5) Hubble (1924): Andromeda aztertu eban eta izar-arteko bideak milloiak argi-urteak bide dirala neurtzen ona izan zan. Orain 15 milloi urte jazo zala Big-bang esan eban. Artean dana zan bola aundi ikaragarri bat eta orduan lertu egin zan eta arrezkeru izarrak eta onein moltzoak bideak egiten doaz aurrera ta aurrera, gaur be bai.

6) Messier: Onek egin eban zeruan dagozan izarki guztien katalogoa, 100 gauza oin lez artuta: Galaxiak, nebulosak, kumuloak, Pleiadeak...

Ori dana dogu ba lan oneitarako aztergai eta urrats bi emongo doguz: lenengoan eguzkiaren ingurua aztertuko dogu eta bigarreanean beste mundu zabala edo zeru sakona.

OLAZAR'tar Martin'ek

* * *

BIZKAITARREI BIZKAIERAZ